AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA
Navarra - Nafarroa

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Lurgorri 12-14 / 31010 BARAÑÁIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

## DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA eta EMATEA ARAUTZEN DUEN DEIALDIA EUSKARAZ eta EUSKARAREKIN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGITEKO, 2016-2017 IKASTURTEAN EPEALDIA: 1. hiruhilekoa, 2016ko urritik abendura.

### 1. XEDEA

Barañaingo Udalak 2016-2017 ikasturtean, zehazki 2016ko urritik abendura (ikasturtearen 1. hiruhilekoa), Barañaingo Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eskolaz kanpoko jarduerak egiteko diru-laguntzen eskaera eta ematea arautzen duen deialdia ezartzen du. Deialdiaren helburuak euskarazko irakaskuntza hobetzera zuzendutako ekimenak babestea –eskolaz kanpoko jardueren bidez- eta esparru akademikotik kanpoko euskararen erabilerarako programen garapena sustatzea dira.

Guraso elkarteek 2016ko urritik abendura eginen dituzten jarduerak (euskaraz eta euskararekin) diruz laguntzeko aurrekontuko (*kontusaila: 33 33501 48900 Subvención actividades euskera*) ehienezko diru-hornidura **2.600 €** izanen da.

Barañaingo Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzari jarraiki (2005eko abuztuaren 5ean argitara emana), diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa aurrekontuaren gehienezko zenbatekoaren % 50 izanen da, oro har.

### 2. BALDINTZAK

Deialdian parte hartzen ahalko dute Barañaingo Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako Guraso Elkarteek, Barañainen helbidea dutenek eta Udalaren interesekoak diren zerbitzuak eman edo jarduerak egiten dituztenek. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, Guraso Elkarteek segidako baldintzak bete beharko dituzte (eta baldintza horiek mantendu diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomico guztian):

- Elkarteen estatutuetan ezarritakoari jarraiki garatzea jarduerak, hezkuntza esparruan.

## CONVOCATORIA QUE REGULA LA SOLICITUD Y CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES *en y con* EUSKERA DURANTE EL CURSO 2016-2017 PERIODO: 1º trimestre, OCTUBRE-DICIEMBRE 2016.

### 1. OBJETO

El Ayuntamiento de Barañáin establece la siguiente convocatoria de subvenciones por la realización de actividades extraescolares en los centros de Educación Infantil, Primaria y Secundaria de Barañáin, durante el curso escolar 2016-2017 y concretamente para el periodo octubre-diciembre de 2016 (1º trimestre), con el doble objetivo de dar soporte a las iniciativas encaminadas a la mejora de la calidad de la enseñanza en euskera, mediante la realización de actividades extraescolares, y fomentar programas de uso del euskera en ámbitos no estrictamente académicos.

La dotación presupuestaria máxima (*partida: 33 33501 48900 Subvención actividades euskera* es de **2.600 €** para subvencionar las actividades extraescolares *en* y *con* euskera que desarrollen las Apymas en los centros escolares durante el periodo octubre-diciembre de 2016.

En la base de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Barañáin publicada el 5 de agosto de 2005, como norma general, el importe máximo de la subvención se cifra en el 50% del gasto presupuestado aceptado.

### 2. REQUISITOS

Pueden solicitar la subvención con cargo a la presente convocatoria las Apymas de centros educativos públicos y concertados de Educación Infantil, Primaria y Secundaria con domicilio en Barañáin, que presten servicios o realicen actividades de interés municipal, y que a la finalización del plazo de presentación de solicitudes reúnan los siguientes requisitos, que deberán mantener durante los ejercicios económicos para los que se concede la subvención:

- Que desarrollen actividades conforme a lo establecido en sus estatutos en el ámbito de la educación.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Lurgorri 12-14 / 31010 BARAÑÁIN
**Tel.: 948 28 63 09**
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

- Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkarteen Erregistroan eta Barañaingo Elkarteen Udal-erregistroan.

- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea, eta hori guztia egiaztatzea dagozkion sinestamenduekin (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza). Barañaingo Udalarekiko betebehar fiskalei dagokionez ofizioz egiaztatuko da hori guztia, behar diren zuzemenen bidez agerrarazita. Era berean, de diru-laguntza ematgea proposatu aurretik, ofizioz egiaztatuko da eskatzaileak ez izatea ordaintzeke zenbatekorik Udalaren diruzaintzan.

- Aurkeztuta edukitzea aurreko urteetan jasotako diru-laguntzei dagozkien ordainagiri guztiak.

- Barañaingo Udalarekin ez edukitzea sinatuta elkarlanerako hitzarmenik, zerbitzu kontratatziorik edo beste era bateko kontratu edo konpromisorik egitasmoarentzat, zeinetarako eskatu baita finantzazioa. Era berean, diru-laguntzarik ez jasotzea Udalaren beste arloetatik jarduera bererako.

## 3. ESKABIDEAK

Diru-laguntza deialdi honetara bildu nahi duten Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Guraso elkarteek, Udaletxeko **Herritarrak Hartzeko Bulegoan** (OAC), **2016ko urriaren 14ko, ostirala, 14:00ak baino lehen**, segidako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Diru-laguntzarako eskabidea, Udaletxeko OAC bulegoan eskura izanen duzuen instantzia orokorraren ereduaren araberakoa, eta Udalaren Euskara Zerbitzuarentzat bideratuta. Argi eta garbi adieraziko dira diru-laguntza eskatzen duen guraso elkartearen izena eta eskabidea egiten duen ordezkariarena. Instantziako atal guztiak behar bezala bete behar dira.

- 2016ko urritik abendura egin nahi diren eskolaz kanpoko jardueren egitasmo-aurrekontua barne hartzen duen Proiektua, **1. ERANSKINA**ren arabera. Argi eta garbi adierazi beharko da ondorengo hau:

- Aurkeztutako programak dituen helburuak.

- Ser persona jurídica, legalmente constituida y estar debidamente inscritas en el registro de asociaciones del Gobierno de Navarra y en el Registro municipal de Asociaciones de Barañáin.

- Estar al corriente de las obligaciones fiscales y de Seguridad Social. En el caso de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Barañáin se comprobará de oficio, haciendo constar dichas circunstancia mediante la oportuna diligencia. Así mismo, previamente a la propuesta de concesión, se comprobará de oficio que no tiene cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal.

- No tener pendiente la justificación de importes de subvenciones recibidas en años anteriores.

- No tener suscrito un convenio de colaboración, una contratación de servicios, u otro tipo de contratos o compromisos con el Ayuntamiento de Barañáin, respecto al proyecto para el que se solicita financiación, así como no disponer de subvenciones de otras áreas del Ayuntamiento para la misma actividad.

## 3. SOLICITUDES

Las Apymas de Educación Infantil, Primaria y Secundaria que soliciten acogerse a la presente convocatoria deberán presentar en la **OAC** (Oficina de Atención Ciudadana) del Ayuntamiento **antes de las 14:00 horas del viernes, día 14 de octubre de 2016**:

- Solicitud de subvención en modelo de instancia general (a disposición en la OAC-Oficina Atención Ciudadana), con destino al Servicio Municipal de Euskera. Se indicarán claramente el nombre de la Apyma solicitante así como el de la persona que realiza la solicitud en su representación, cumplimentando la instancia debidamente en todos sus apartados.

- Proyecto con el Programa-presupuesto de las actividades extraescolares y complementarias que se pretenden desarrollar durante el periodo octubre-diciembre de 2016, según **ANEXO 1** indicando claramente:

- Objetivo/s del programa presentado.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Lurgorri 12-14 / 31010 BARAÑÁIN
**Tel.: 948 28 63 09**
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

- Egin beharreko jarduer(ar)en gaineko eskaintza, zeinetan erakutsiko baitira honako datu hauek: jardueraren izena, zein mailatako ikasleentzat antolatu den, arduradunaren izena, noiz eginen den, gastuei dagokion aurrekontua, eta aurreikusi dena gastu eta diru-sarrera gisa.

- Adierazpen arduratsua **4. ERANSKINA**ren arabera.

Agiriak jatorrizkoak edo konpultsatutako fotokopiak izanen dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie, gehienez ere, jakinarazpena jaso eta biharamuntetik aitzina, aurkeztu gabeko agiriak aurkezteko edo egin diren akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez bada, epe hori igaro ondoren eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

## 4. BALORAZIOA

Diruz lagunduko dira, bakarrik, ikasleak protagonista dituzten eta guraso elkarteek kontratatutako monitore/irakasleek koordinatzen dituzten jarduerak, proposatutako euskarazko jardueren parekorik eskaintzen ez badu Barañaingo Udalak.

Jarduerak modu erregularrean ematen diren hizkuntzei, mekanografiari, informatikari eta abarri buruzko eskolak badira, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Deialdian jasotako dirutzak ez badu estaltzen guraso elkarteek aurkeztutako defizita, segidako irizpidea erabiliko da diru-laguntza emateko: Ikasturte osorako (8 hilabete) antolatzen diren jarduerek, gastuaren % 50eko (gehienez lagundu daitekena) diru-laguntza izanen dute, unean unean garatutako jarduerek baino modu eraginkorragoan laguntzen baitute hizkuntzaren ikaskuntza prozesua eta hizkuntzaren erabilera. Gainontzeko jarduerendako, unean unekoendako, deialdian dagoen saldoa banatuko da. Proposamenek aurrekontuaren gordailua gaindituko balute, dagokion hainbanaketa egingo litzateke.

Behin Udalaren Euskara arloko zerbitzu teknikoek proiektuen balorazioa eginda –eta Udalaren Kontu-hartzailetzak fiskalizazioa egin eta gero-, Tokiko Gobernu Batzordeari proposatuko zaio diru-laguntza eman edo ukatzeko akordioa har dezan.

- Oferta de actividad/actividades a realizar, de manera que se identifiquen: nombre de cada actividad, curso y/o alumnado al que se dirige, nombre de la persona responsable, fechas de realización, presupuesto de gastos, concepto del gasto e ingresos previstos.

- Declaración responsable según **ANEXO 4.**

La documentación será original o fotocopia compulsada. Se concederá a las personas solicitantes un plazo máximo de 10 días, a partir del día siguiente a la notificación, para presentar aquella documentación omitida o para subsanar el defecto presentado. En el caso de que no lo hubieran hecho, una vez transcurrido este plazo, se tendrá por desistida la petición.

## 4. VALORACIÓN

Sólo se subvencionarán aquellas actividades que estén protagonizadas por el alumnado y coordinadas por monitores/profesores contratados por las Apymas, siempre que no haya oferta de actividades en euskera igual a la propuesta y organizada o subvencionada por el Ayuntamiento de Barañáin.

No se considerarán actividades subvencionables aquellas actividades que supongan el establecimiento de clases regulares tales como idiomas, mecanografía, informática y similares.

En el supuesto de que la cantidad contemplada en la convocatoria no cubra el déficit presentado por las Apymas, se aplicará el siguiente criterio para la concesión de la subvención: las actividades que se desarrollen durante todo el curso escolar (8 meses), tendrán una ayuda económica del 50% del gasto (máximo subvencionable), ya que permiten complementar el proceso de aprendizaje y uso de la lengua de forma más eficaz que las actividades programadas puntualmente. Para el resto de actividades, puntuales, se distribuirá el saldo restante de la convocatoria. En el supuesto de que las propuestas superen la consignación presupuestaria, se establecerá el prorrateo correspondiente.

Realizada la valoración técnica de los proyectos por los servicios técnicos del Área de Euskera -y previa fiscalización del gasto por Intervención Municipal- se elevará propuesta de concesión/denegación y los términos de la misma a Junta de Gobierno Local.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri 12-14 / 31010 BARAÑÁIN
**Tel.: 948 28 63 09**
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

## 5. EMAKIDA

Diru-laguntza eman eta gero, onartutzat joko da interesdunak horren berri hartu eta hamar eguneko epean argi uko egiten ez badio. Eskatzaileak Kultura, Hezkuntza eta Euskara Batzordearen aurrera ager daitezen eskatzen ahalko da, Batzordeak eskatutako edozein argibide eman dezaten.

Guraso elkarte bakoitzari dagozkion ikasturteko diru-laguntzak bitan ordainduko dira:

- emandako hasierako diru-laguntzaren % 50, aldez aurretiko ordainketa gisara, guraso elkarte bakoitzaren aldeko xedapen-espedientea onesten denean;

- emandako diru-laguntzaren beste % 50, behin aurkeztutako ziurtagiriak azterturik, betiere seigarren atalean (BETEBEHARRAK) ezarritako epeekin bat. Eskatzaileren batek aurkeztutako faktura-ziurtagiriek hasiera batez eman dioten zenbatekoak baino gutxiago jotzen badute, justifikatu duen zenbatekoari proportzionalki lotuko zaio.

## 6. BETEBEHARRAK

Behin eskatzaileek aurkeztutako programak aztertu eta ebaluatuta, eta Deialdiaren XEDEA atalean ezarritako irizpideekin bat, Guraso Elkarte bakoitzaren aldeko hasierako diru-laguntza xedatu eta gero, deialdi honetara bildu diren Guraso Elkarteek, jarduerak amaitu eta gero, eta **2016ko abenduaren 23ko, ostirala, 14:00ak baino lehen** Udaletxeko Herritarrak Hartzeko Bulegoan (OAC), honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Instantzia orokorraren ereduaren araberako eskabidea, Barañaingo Udalari zuzendua, Udalaren Euskara zerbitzuarentzat, atal guztiak behar bezala beterik.

- 2016/2017 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoari dagokion diru-laguntza xede izan duten jardueren gastuen jatorrizko fakturak, **2. ERANSKINA**ren arabera.

- Guraso Elkarteko presidentearen zinpeko aitorpena, aurkeztutako fakturen kautotasuna egiaztatzeko, bai eta fakturak jarduerek eragindako gastuekin bat etorri izana nahiz deialdi honek diruz laguntzen dituen jarduerak egiteko beste diru-laguntzarik jaso

## 5. CONCESIÓN

Concedida la subvención, se dará por aceptada si no hay renuncia expresa de la misma en el plazo de diez días desde la notificación al interesado. Los solicitantes podrán ser requeridos ante la Comisión informativa de Cultura, Educación y Euskera para cuantas aclaraciones sean solicitadas por la misma.

Las subvenciones que correspondan a cada Apyma para el curso escolar se abonarán en dos plazos:

- el 50% de la subvención inicial concedida, como pago anticipado, en el momento de la aprobación del expediente de disposición del gasto a favor de cada Apyma;

- el 50% restante del importe concedido, una vez recogidos los justificantes que se presenten, conforme a los plazos establecidos en las bases (6. OBLIGACIONES). Si algún solicitante presentara facturas justificantes por un importe inferior al inicialmente concedido, la cuantía de la subvención se ajustará proporcionalmente hasta el límite de la cantidad justificada.

## 6. OBLIGACIONES

Una vez revisados y evaluados los programas presentados por las solicitantes, y dispuesta la subvención inicial a favor de cada Apyma conforme al criterio establecido en el OBJETO de la Convocatoria, las Apymas que hayan solicitado acogerse a la presente convocatoria deberán presentar a la finalización de las actividades y, **antes de las 14:00 horas del viernes, día 23 de diciembre de 2016**, en la **OAC**-Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento, la siguiente documentación:

- Solicitud dirigida al Ayuntamiento de Barañáin en modelo de instancia general, con destino al Servicio Municipal de Euskera, cumplimentados debidamente todos los apartados.

- Facturas originales de los gastos de las actividades a las que han dedicado la subvención correspondiente al primer trimestre del curso 2016/2017 según **ANEXO 2**.

- Declaración jurada del Presidente de la Apyma acreditativa de la autenticidad de las facturas que se aportan y su correspondencia con los gastos de las actividades realizadas, y de que no han obtenido otras subvenciones para las

Lurgorri 12-14 / 31010 BARAÑÁIN
**Tel.: 948 28 63 09**
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

ez izana ere, **3. ERANSKINA**ren arabera.

Egiaztagiriak aurkezteko epeak luzaezinak izanen dira kasu eta egoera guztietan. Ez dira onartuko epea amaitu eta gero aurkezten diren eskabideak.

Udalak beretzat gordetzen du edozein informazio osagarri eskatzeko eskubidea eta diruz lagundutako jarduerak ikuskatu eta kontrolatzeko aukera. ARAU hauen kontra egindako edozein arau-haustek diru-laguntza baliogabetzea ekartzen ahalko du, bai eta ikastetxe onuradunak jasotako diru-kopurua itzultzeko beharra (horri dagozkion berandutze-korrituak barne; diru-laguntza noiz jaso eta hortik aitzina) eta hurrengo deialdian parte hartzeko eskubidearen galera ere.

Diru-laguntza zertan erabili den 2016ko abenduaren 23a baino lehenago justifikatu beharko da. Salbuespen gisa, eta eskaera-orria 2016ko abenduaren 23a baino lehen aurkeztuta, epea luzatu daiteke -Tokiko Gobernu Batzordeak hala ebatzita-, aurreikusitako epeetan arrazoi justifikatuengatik gauzatu ezin izan diren proiektuetarako zein berez iraupen luzeagokoak direnetarako.

## 7. EZ BETETZEA

Ondoko portaerak dira diru-laguntza eta laguntza publiko arloko administrazio arau-hausteak, baldin eta horietan dolu, erru, edo, besterik gabe, arduragabekeria badago:

- Diru-laguntza edo laguntza bat eskuratzea, hori hartzeko baldintzak faltsutuz, edo hura eragotzi edo murriztuko zutenak ezkutatuz.

- Jasotako kopuruak ez erabiltzea diru-laguntzaren xedeetan, baldin eta ez bada diru-laguntza itzuli aurretiko errekerimendurik gabe.

- Onuradunari edo zuzenbidezko edo egitatezko administraile gisa aritutakoei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik, diru-laguntza ematerakoan ezarririko eginbeharrak ez betetzea.

mismas actividades que se subvencionan por esta convocatoria, según modelo que se adjunta en **ANEXO 3**.

Los plazos de justificación serán improrrogables en todos los casos y circunstancias, no admitiéndose ninguna documentación que llegue fuera del mismo.

El Ayuntamiento se reserva el derecho a requerir cualquier información complementaria y la posibilidad de inspección y control de las actividades que sean receptoras de subvención. Cualquier infracción de las presentes NORMAS dará lugar a la revocación de la subvención concedida, a la obligación por parte del centro beneficiario de la devolución de las cantidades percibidas, incrementada con los correspondientes intereses de demora legales a contar desde el momento del pago de la subvención, y a la pérdida del derecho a participar en la próxima convocatoria.

La justificación de la aplicación de la subvención se realizará antes del 23 de diciembre de 2016. Excepcionalmente y previa presentación de instancia de solicitud antes del 23 de diciembre de 2016 se extenderá este plazo si así lo resuelve la Junta de Gobierno Local para aquellos proyectos que no se hayan podido ejecutar en los plazos previstos por causas justificadas, así como aquellos otros cuya duración así lo requieren.

## 7. INCUMPLIMIENTOS

Constituyen incumplimientos administrativos, en materia de subvenciones y ayudas públicas, las siguientes conductas, cuando en ellas intervenga dolo, culpa o simple negligencia:

- La obtención de una subvención o ayuda falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido o limitado.

- La no aplicación de las cantidades recibidas a los fines para los que la subvención fue concedida, siempre que no se haya procedido a su devolución sin previo requerimiento.

- El incumplimiento, por razones imputables al beneficiario o a quienes hayan actuado como administradores de derecho o de hecho, de las obligaciones asumidas como consecuencia de la concesión de la subvención.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera

Lurgorri 12-14 / 31010 BARAÑÁIN
**Tel.: 948 28 63 09**
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

o Erabilera ez egiaztatzea, jasotako funtsen edo egiaztagiri faltsuen ondorioz.

Lehen aipaturiko portaerak agertzen dituzten elkarte onuradunak izanen dira arau-hausteen erantzuleak.

Deialdiak agiri honek bildutako baldintzei jarraituko die; agiriak ez bildutakoari dagokionez, ondoko arauei jarraituko die: Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Tokiko Ogasunen Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea eta, osagarri gisa, Aurrekontuen gaineko Lege Orokorra, diru-laguntzak arautzen dituena estatu mailan.

## 8. HELEGITEAK

Interesdunei jakinaraziko zaizkie haien eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 58, 59, 60 eta 61. artikuluek xedatutakoari jarraiki.

Oinarri hauen eta horiek betetzeko Administrazioak hartutako edozein ebazpenen kontra jar daitezke, aukeran, ondoko helegiteak:

o Berraztertzeko helegitea, administrazio-egintza Udaleko zein organok gauzatu eta horri zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

o Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunetik hasita aitzina.

o Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori zenbatuko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunetik hasita aitzina.

Deialdi honen oinarrietan aurreikusten ez diren gaietan, Barañaingo Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzari (NAOn argitara emana, 2005eko abuztuaren 5ean) men eginen zaio, Ordenantzan aurreikusten ez den orotan, indarreko legeetan xedatutakoari (Ordenantzaren 27. artikulua).

o La falta de justificación del empleo dado a los fondos recibidos o utilización de justificantes falsos.

Serán responsables directos de los incumplimientos, las Asociaciones beneficiarias de la subvenciones que realizasen las conductas tipificadas.

La presente Convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa: Ley Foral de la Administración Local de Navarra, Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra, Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria, Normativa estatal sobre subvenciones.

## 8. RECURSOS

La notificación a los interesados de las resoluciones y actos administrativos que afecten a sus derechos e intereses se efectuará de conformidad con lo establecido en los artículos 58, 59, 60 y 61 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

o Recurso de reposición ante el órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.

o Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

o Recurso contencioso administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

En lo no previsto por las bases particulares de esta Convocatoria, se estará a lo dispuesto por la Ordenanza Reguladora de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Barañáin, publicada en el BON el 05/08/2005, y en lo no previsto por la Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la legislación vigente (artículo 27 de la Ordenanza).